

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Usaina buruan

JULIETARI ESKEAN JOAN ZITZAION Romeo gizajoa, mingranondo (*Punica granatum*) baten abaroan saldu zigun Shakespearek; jakingo zuen, bai, idazleak landare honek ugalkortasunari egiten dion mesedea...

Beste saltzaile batek, landare saltzaile batek, "William Shakespeare" izena jarri zion berak patentatutako landare bati. Arrosa batek du izen hori. David Austin bere egileak. Mundu osoan ezaguna den muintegi bat du eta landare berrien sorkuntzan garai bateko arrosen estiloa lantzen du, batik bat.

Idazle handiaren izena daraman arrosa beste bi arrosen arteko nahasketa edo hibridaziotik sortua da, "The Squire" eta "Mary Rose" ditu guraso. 1987an jaio zen eta harrez gero makina bat izkina bereganatuak ditu, baratzetan, bihotzetan, lore sortetan, sudurretan... Arrosa moderna izateko lurrin gozo izugarria du, arrosa zaharretan ospetsuena zen Damaskoko arrosa mitikoaren usaina duela diote adituek.

Gaur egun hau da landare berrietan topatzen zailena zaigun ezaugarria, usaina. Kolore nahasketa erakargarriak, lore handiak, forma ikusgarriak eta begietarako soilik pentsatzen duen gizarte honek barra-barra erosiko dituen landareak besterik ez

dituzte buruan sortzaile-saltzaileek.

Usaimenaz gain beste zentzumenak ere biltzeko asmoa bazuen kaskoan "William Shakespeare" arrosa berri honen egileak. Ikusmenerako, korola bikoitzeko petaloak gorrimitetik abiatu eta gorri-rosa edo purpurara mudatzen dira; gorri-min bizi edo ilunetan dotoreena dela diote. Uki-menerako, belusezko petaloak ditu. Dastatzeko aukearik ez dut izan, hurrengo batean esango dizut...

Gaitzei aurre egiteko ikaragarritzko kemena duen arrosa da hau eta, beraz, gure isuri atlantikoko lurretarako aproposa. Ikusi nahi duenak, bere izena daraman idazle sonatuaren jaiotetxera hurbildu besterik ez du, Ingalaterrako Stratford-upon-Avoneko Henley kalera, hantxe dago arrosa honen sail eder bat. Sortzaile-saltzaileak jarria. Ez dakit, publizitatea, propaganda, ala biak.



VICTORIA SAVIDGE

"William Shakespeare" arrosaren ale bat.



WWW.BARCELONAPHOTOBLOG.COM

12 eta 13

Euskaraz apartak diren hamaika eta hamalau zenbakien arteko beste biok gereziak, *Prunus avium*, aritzeko aitzakia emango didate.

$11 + 1 = 12$. Hamabina gramoko pisua zuten gerezi aleak jan ditut oraintxe, marka ikaragarria. Besterik gabe tamaina kontuan hartuta, azken urte hauetan egin diren selekzioetatik sortutako gerezi pikor bakoitzak zazpi eta bederatzi gramoko pisua izan ohi du. Aurten hamabikoak, hurrengo urtean? Mamiak soilik du garrantzia eta laster hezurrik gabeko gereziak izango ditugu. Erne eta zaindu eperra!

$14 - 1 = 13$. Martxoaren hamahiruan atera ditu aurten mundu osoko lehen gereziak Kataluniako Lleidako S.A.T. Edoan enpresak. Patente berezi baten eta Almacellesen dituen negutegien abaroan beste inor baino azkarrago merkaturatzeko gai da eta aberastu egiten da. Iaz Londresko Harrods merkataritza gune sonatuan kilo 113 euroren truke saltzen zen. Aurten lehen kilo eBay etxearen bidez enkantean atera eta 1.040 euro ordaindu da. Hara!